

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Enpresek eta autonomoek bihartik aurrera milioi bateko laguntzak eska ditzakete langabezia duden gazteak kontratatzeko

*Nafar Lansareak haiekin 250 eta 300 arteko kontratuak edo lan-praktikak izenpetzea aurreikusten du*

Astelehena, 2016.eko urriak 3

Enpresek, autonomoek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek bihartik, astearte, eta urtea amaitu artean [laguntza berriak](#) eskatu ahalko dituzte (1.068.259 euro) Nafar Lansarean langabe gisa erregistratuta dauden 30 urtetik beherako gazteak kontratatzeko.

Diru-laguntza horiek ([haien oinarriak](#), gaur, astelehena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira) iragan uztailen onartutako [beste deialdi bati](#) gehitzen zaizkio (790.000 euro), eta toki-erakundeek gazte langabeen kontratazioa sustatzea bilatzen dute. Orain arte [laguntza horiekin](#) 195 kontratazio finantzatu dira eta, xede horretarako, 560.000 euro bideratu dira.

Nafar Lansareak aurreikusten duenez, gaur argitaratutako laguntzekin 250-300 kontratu berri edo lan-praktika izenpetuko dira. Zehazki, diru-laguntzaren hiru modalitate jasotzen dira sinatzen den kontratu-motaren arabera: praktiketako, prestakuntza eta ikaskuntzako, edo lanekoak ez diren praktikak.

Kalitatezko enplegu bat bermatzeko asmoz, deialdiak gutxieneko ordainsari bat finkatzen du, eta diru-laguntzaren erakunde onuradunak kontratatutako pertsonen ordaindu beharko die haien ikasketa-tituluaren eta izenpetutako kontratuaren arabera. Gainera, kontratazioak sei hilabetekoak izango dira gutxienez praktiketako edo lanean ez diren



Milioi bat euroko laguntza berri hauen bidez, enpresek, autonomoek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek gazteak kontrata ditzaten sustatu nahi da.

praktiketako kontratuen kasuan, eta hamabi hilabetekoa prestakuntza nahiz ikaskuntzako kontratuatarako.

### **Gutxieneko soldata-kostuaren %60 gehienez**

Aipatu den moduan, 30 urtetik beherako langabeak kontratatuko dituzten enpresak, autonomoak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak izango dira onuradunak, edo 25 urte artekoak lanekoak ez diren praktiken kasuan, eta Nafar Lansareak inskribatuta daudenak.

Diru-laguntzak modalitate bakoitzerako finkatutako gutxieneko soldata-kostuaren % 60 estaliko du. Gizarteratzeko errenta jasotzaileak diren, desgaitasuna duten eta genero-indarkeriaren biktimak diren pertsonak kontratatzen dituztenen kasuan, erakunde onuradunek % 20 gehiago jasoko dute. Emakume bat kontratatzen bada, % 15eko diru-laguntza handiagoa erdietsiko da.

Praktiketako kontratuaren modalitatea Europako Gizarte Funtsak eta Europar Batasuneko Gazte Enpleguaren Ekimenak % 92an kofinantzatzen dute [Gazte Enpleguaren Programa Eragilea](#)ren esparruan.

### **Toki-erakundeetako 195 kontratazio finantzatu dira**

Bestalde, toki-erakundeetarako deitutako laguntzekin orain arte 195 gazteren kontratazioa finantzatu da. Deialdi honetan kreditua geratzen da oraindik, 230.000 euro zehazki, enplegu gehiago diruz laguntzeko.

Egindako 195 kontratazioetatik, 70 emakumeei dagokie; 65 gizonei; 36 Gazteen Berme Sistemari inskribatutako gizonei; eta 24 gizarteratzeko errentaren jasotzaileen, desgaitasuna duten pertsonen eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen kolektiboari.

### **Helburua: gazteen langabezia murriztea**

Gazteen langabezia murriztea Eskubide Sozialetako Departamenturako helburu nagusia da. Kolektibo honen langabezia-tasa % 24,85ean kokatzen da, bigarren seihilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera. Abuztuan, eskuragarri dagoen azken datua, 7.336 gazte zeuden inskribatuta Nafar Lansarean, % 54,7 emakumeak eta % 45,3 gizonezkoak.

Nafarroan, erregistratutako gazte langabeen profil nagusia oso antzekoa da sexuaren arabera, 20 eta 29 urte artean daude, ikasketa-maila txikia dute eta gutxienez langabe moduan sei hilabetez inskribatuta daude.